

MILAGROS RUBIO BATZARREKO LEGEBILTZARKIDEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN

«Egoera politikoa desitxuratuko du Batasuna legez kanpo uzteak»

Batasuna legez kanpo uzteko aukerak egoera politikoa erabat desitxuratzen duela uste du Milagros Rubiok, Batzarreko Nafarroako legebiltzarkideak. Hauteskundeetarako urtebete eskas gelditu arren, nazionalisten arteko aliantzez mintzatzeko goizegi dela dio.

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Talde Mistoak Nafarroako Legebiltzarrean duen bulegoan hartu gaitu Milagros Rubiok. Etorbizun politikoan itzalak argiak baino gehiago direla uste du Batzarreko kideak.

■ Urtebete eskas falta da hauteskundeetarako. Nola ikusten duzu Nafarroako egoera politikoa?

Ezker baskistarentzat zaila oso. Batasuna legez kanpo uzteko aukerak egoera politikoa erabat desitxuratzen du, eta ez du utziko herritar guztientzako aukera berdintasunik.

■ Ilegalizazioaren inguruan zein jarrera hartuko dute ezker abertzaleko gainerako alderdiek?

Ilegalizazioak aurreikus ezin daitezkeen ondorioak ekarriko ditu. Politikoki ideia aukera guztiak ezin izanen dira plazaratu. Balizko ilegalizazioak bideak ixten dizkio bide politikoaren eta bortizkeria politikoaren inguruan Batasunean zegoen eztabaidari; bere baitara gehiago biltzen du taldea, eta eztabaida hori mozten du. Ilegalizazioaren aurka azaldu behar dugu modu aktiboan. Oraingoan, ekainaren 15ean Bilbon egiten dugun manifestazioan islatuko da.

■ Aralar eratze prozesuan dago, eta Batasuna legez kanpo geratzeko zorian. Zertan gelditzen dira ezkerreko talde abertzaleak Nafarroan?

Ezker baskistak Nafarroan eraketa askotarikoa du, eta hainbat erakundetan kokatzen da. Aralar eta Batzarre horren partaide dira. Baina jada ezker abertzalean dagoen banaketa, desitxuratu gelditzen da, haren zati handi batek, seguruenik gehiengo denak, ez duelako aukerarik izanen hauteskundeetara aurkezteko, botoak batzeko eta bere hitzaldi politikoa egiteko. Egin behar litzatekeen norabidearen kontrako egiten du ilegalizazioak; behar dena, Batasuna, gero eta gehiago, bide politikoa hartzera bultzatzea baita. Eta gogoeta eta eztabaida askatasunez egitea, edozein gairen inguruan.



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

■ EA, Aralar, AB, Zutik eta Batzarrek Zubiak eraikitzen idazkia kaleratu zenuten ETari su-etena eskatuz. Beste pausorik eman duzue?

Jarraitu dugu bilerak izaten. Talde bakoitzaren materiala trukatzeko dugu eta eztabaidak izaten ditugu. Lan batzordeak eratu ditugu. Hau ez da hauteskundeetarako plataforma bat, topaketa gune bat baizik. Batek, balio digu barruko gogoeta bultzatu eta elkarrekin ditugun puntuak egonkortzeko, eta bestetik, aurrera egiten dugun gaian eta politikan dauden gertakari jakinen inguruan iritzi publikoaren aurrean jarrera bera azaltzen dugu.

■ ETak kaleratu azken Zuta-

be aldizkarian, aurpegiatu dizue Batasunaren aurkako frontea osatzea, eta ezker abertzalea ahuldu eta desgerrarazi nahi izatea.

ETAk ezker baskista anitzarekiko tolerantzia falta agerian utzi du. Bere estrategiarekin bat ez datorrenari esaten dio Batasunaren aurkako hitzarmena egin duela. Hori errealitatek urrutitu dago. Ezker desegituratu dago, eta ezker abertzalea ere bai. Faktore batek okerragotzen du, ETaren borroka armatuak, eta akordio handiagoak eragozten ditu ezker baskistako partaideen artean. Hala ere, bide politikoetatik Euskal Herriaren subiranotasunaren alde gauden ezkerreko alderdiak, saiatu gara

BATASUNA

«Ilegalizazioak bideak ixten dizkio bortizkeria politikoari buruz Batasunean zen eztabaidari»

HAUTESKUNDEAK

«Batzarre, hauteskunde aliantza baten aurrean, erosoago sentitzen da ezker baskistarekin»

UPN-RI ALTERNATIBA

«Egoera berezietan, egungoan kasu, atea zabalik utzi behar zaio edozein aukerari»

gogoetaren bidetik batasunera-ko guneak topatzen, eta horri erantzuten dio Zubiak eraikitzen manifestuak. Dena dela, etorkizunean atea gehiago ireki behar du, arrakasta izateko.

■ Jose Antonio Urbiola EAJko NBBko presidenteari eratzeko PSNri laguntzea, eta nazionalisten arteko elkarlana proposatu ditu. Izan duzue harremanik?

Ez da guztien arteko elkarrekin egon, baina bi aldetako hainbat solasaldi izan dira. Hala ere, gogoeta ildo guztiek atea zabalik dituzte. Batzarre, hauteskunde aliantza posible baten aurrean, erosoago sentitzen da ezker baskistarekin. Egia da egoera berezietan, eta egun hemen bizi duguna oso berezia da, atea irekia utzi behar zaiola edozein aukerari. Gainera, Aralar oraindik eratze prozesuan dago. Hauteskundeetarako urte eskas falta den arren, goizegi da aukerak egiteko.

LAGURAEAN

Ondarroako Udalak elkartasuna adierazi dio Kepa Badiola presoari

Ondarroako Udaleko osoko bilkurak elkartasuna adierazi dio Kepa Badiola Aspiazu Frantziako Eysse espetxean zigorra betetzen ari den presoari. Batasuna eta EA alde azaldu ziren, eta EAJ abstenitu egin zen. Badiolak uztailaren 3an beteko du zazpi urteko kartzela zigorra eta, nahiz Espainian kargurik ez izan, kanporatu egingo dutela uste du. Arrazoi horregatik, egun batzuk daromatza gose greban.

Bautista Barandalla aske uzteko eskatu du Ziordiko Udalak

Ziordiko udalbatzarrek Bautista Barandalla preso etxarriarra aske uzteko egin diren eskaerei erantzuteko eskatuko die Zaragozako kartzelako zuzendariari eta Espetxe Zaintzako epaileari. Udalak aho batez onartu zuen Barandallaren aldeko plataforma aurkeztutako mozioa. Barandallak hestetako butxadura du, eta lau aldiz eraman dute ospitalera. Eskaera ebatzi bitartean, behin-behinean Iruñeko preso degira eramateko eskatu zuen Udalak.

Batasuneko kide Gorka Murillo lau orduz errepide kontrol batean atxiki zutela salatu dute

Batasunak ohar batean salatu duenez, Guardia Zibilak Gorka Murillo Nafarroako Mahaiko kidea Zuastiko bidesarian atxiki zuen herenegun lau orduz. Kontrollean «galdeketa luzeak, mehatxuak eta eraso fisikoak» jasan zituela eta alderdiaren barne txostenak eta propagandarako materiala eramane zutela jakinarazi du Batasunak. Batasunaren kontrako «kriminalizazioaren» barruan kokatu zuen.

Xabier Arnaiz hernaniar presoak 20 urte beteko ditu espetxean bihar

Xabier Arnaiz hernaniar presoak bihar 20 urte beteko ditu espetxean. Hori dela eta, Hernaniko Plataformak eta Amnistiaren Aldeko mugimenduak zenbait ekitaldi antolatu ditu. Horrenbestez, bihar manifestazioa abiatuko da Gudarien plazatik arratsaldeko 19:00etan. Xabier Arnaizek 1997. urtean bete zituen zigorraren hiru laurdenak.